


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2004KO MAIATZA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,5 igo ziren 2004ko maiatzean

Azken hamabi hilabeteetan (2004ko maiatza, 2003ko maiatzarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %5,3 gehitu ziren.

2004ko maiatzean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,5 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta maiatzeko urte arteko tasa %5,3ra iritsi zen, EUSTATEN datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1996-2004



(*)Eskainitako hazkundea maiatzeko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2004ko maiatzean, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0) eta lehengaien kostuak, berriz, %0,7 igo ziren.

Eraikuntza eta obra zibila azpisektoreek antzeko bilakaera izan zuten: aurreko hilaren aldean %0,7 igo zen *eraikuntza* eta %0,8 *obra zibileko* lehengaien kostuak, hau da, hamarren bat gehiago. Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratuz gero, ibilbide are homogeneousagoak izan zituztela ikusiko dugu: *eraikuntzako* lehengaien kostuak %6,0 igo ziren eta *obra zibilekoak* beste horrenbeste.

Maiatzean, prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: *petroliotik eratorriak* (%6,0), *metalezko hoditeria* (%4,2), *garbitzeko eta txukuntzeko materialak* (%4,1), *leherkariak eta gasak* (%3,9), *burdina eta altzairua* (%3,5) eta *egiturak eta galdaragintza* (%1,8) lehengaiak. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten *energia elektrikoa* (%-1,6), *zementu artifiziala* (%-1,5), *pinturak eta bernizak* (%-1,2) eta *plastikozko hoditeria* (%-0,6) lehengaiak.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *metalezko hoditeria* (%28,2), *petroliotik eratorritakoak* (%21,6), *burdina eta altzairua* (%20,9), *asfalto-produktuak* (%15,5) eta *zementutik eratorrirakoak* (%7,8) lehengaiak. Bestalde, urte arteko prezioetan (2004ko maiatza, 2003ko maiatzaren gainean), murrizketak izan zituzten *harri elaboratua* (%-5,0), *beira* (%-4,3), *energia elektrikoa* (%-3,7), *bulego-materiala* (%-3,5) eta *plastikozko hoditeria* (%-1,3) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2004KO MAIATZA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	113,0	0,5	5,3	5,1	
ERAIKINAK	112,9	0,5	5,3	5,2	
OBRA ZIBILA	113,6	0,5	5,2	4,8	
LEHENGAIEN KOSTUA	109,8	0,7	6,0	5,7	
ERAIKINAK	109,8	0,7	6,0	5,8	
OBRA ZIBILA	109,8	0,8	6,0	5,4	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	120,6	0,0	3,8	3,8	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tel.: +34-945 01 75 05. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es